

2. Merkatu segmentua

Eskainiko degun zerbitzua bezero jakin batzuei zuzenduta egongo da. Bezer hauek, ondoren aipatuko ditugun ezaugarriak bilduko dituzte.

Batetik, adinari dagokionez, zerbitzua ematerakoan desberdintasunak egingo ditugu. Hau da, 16 urtetik beherakoak alde batetik, 17 urtetik 25 urteetara eta azkenik 26 urteetatik aurrera. Eskaini behar degun zerbitzua emateko behar degun materiala ere bai adinaren arabera joango da.

Generoari dagokionez, gure zerbitzuan ez da desberdintasunik emango. Bestetik, lurraldeari dagokionez Urola kostako bezeroak edukiko ditugu gehien bat eta udaran barnealdeko jendea etorriko da.

Azkenik, egoera sozioekonomikoaren aldetik, surfeko klaseak garestiak izaten dira. Beraz, gure bezeroak maila ertainekoak izango dira.

